

2016ko urtarrilaren 15a, ostirala

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ezartzeko egutegia.

Dekretu honetan araututako irakaskuntzen curriculumak 2015-2016 ikasturtean ezarriko dira Lehen Hezkuntzan, eta 2016-2017 ikasturtean amaituko da haien ezarpena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erlijioaren irakaskuntza.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, erlijioa ikasi nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.

2.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza bat etorriko da Egoitza Santuaren eta Espainiako estatua-ren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioarekin.

Hala, erlijio katolikoa arloa izango da Lehen Hezkuntzan, eta ikasgaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nahitaez eskaini beharrekoa ikastetxeentzat eta hautazkoa ikasleentzat.

Erlijioa hautatzen ez dutenek Balio Sozialak eta Zibikoak landuko dute Lehen Hezkuntzan, eta Balio Etikoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gurasoek, legezko tutoreek edo, hala dagokio-nean, ikasleak hautatuta.

3.– Beste erlijioen irakaskuntza bat etorriko da Espainiako estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak akordioekin eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioekin.

4.– Erlijioaren curriculumak zehaztea erlijio bakoitzeko agintarien eskumena da. Eskola-liburuen eta material didaktikoaren erabilera eta, hala dagokionean, horiek ikuskatzea eta onestea, kasuan kasuko agintari erlijiosoen lana da, Espainiako estatuarekin izenpetutako Erabakiei jarraituz.

5.– Etapako gainerako ikasgaien baldintza eta ondorio berberekin ebaluatuko da Erlijio Katolikoa. Estatuak erlijio bakoitzarekin izenpetutako akordioetan ezarritakoari jarraituz ebaluatuko da erlijio horien irakaskuntza.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak eta bestelako irakaskuntzak uztartzea.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta musikako eta dantzako arte-ikasketa profesionalak uztartzeko aukera emango du hezkuntza-eskumenak dituen sailak.

2.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ezohiko eskolatze-neurriak baimendu ditzake errendimendu handiko kirol-jarduerak egiten dituzten ikasleentzat eta antzeko egoeretan dauden ikasleentzat.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Helduen Hezkuntza.

1.– Lehen Hezkuntzari dagozkion oinarrizko konpetentziak eta ezagutzak eskuratu nahi dituzten helduei beren egoerara egokitutako eskaintza egingo zaie, modu presentzialean edo urrutiko hezkuntzaren bidez.

2.– Ikaskuntzaren malgutasuna errazteko, helduentzako irakaskuntza moduluka antolatuko da, hiru gradutan: Hasierako Irakaskuntzak I, Hasierako Irakaskuntzak II eta Bigarren Hezkuntza. Gutxienez azken gradu hori bi esparrutan banatuko da, eta horietako bakoitza bi mailatan. Bi urtean egiteko modua eman behar du:

– Hizkuntza- eta gizarte-esparrua (gutxienez, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Lehen Hizkuntza eta Geografia eta Historia).

– Zientzia- eta matematika-esparrua (gutxienez, Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, eta Teknologia).

3.– Helduen Oinarrizko Hezkuntza berariazko curriculum baten arabera garatuko da, Dekretu honen II. eranskineko curriculumarekin egokituz.

Berariazko curriculum horrek, halaber, Oinarrizko Hezkuntzako gainerako ikasgaietako alderdiak jaso ditzake. Horren guztiaren azken helburua oinarrizko konpetentziak lortzea da, bestiek beste, bizitzan zehar prestatzen jarraitzeko bidea emango duten ikaskuntzak egitea.

4.– Ikasleek aurretiaz izandako esperientziak eta eskuratutako jakintza aitortu eta balioztatuko dute ikastetxeek, jakintza-arlo bakoitzeko maila batera edo bestera bideratzeko eta atxikitzeko.

5.– Amaierako ebaluazioa gaindituta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortuko da.

6.– Hemezortzi urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua zuzenean lortu ahal izateko probak antolatuko dira aldizka, betiere, pertsona horiek etapako oinarrizko konpetentziak eta helburuak lortu badituzte. Arestian adierazitako bi esparruetan oinarrituko dira proba horiek.

7.– Helduen hezkuntza ikastetxe arruntetan edo berariazkoetan emango da, hezkuntza-eskumenak dituen sailaren baimenarekin.

8.– Berariazko programak sustatuko dira horien premia duten kolektiboentzat; esaterako, euskarazko eta gaztelaniazko oinarrizko hizkuntza-trebetasunak etorkinentzat, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasketetara sartzeko prestakuntza, etab. Berariazko laguntza behar dutenen kasuan, pertsona helduetara egokituko dira eskola-adinean dauden ikasleentzako aniztasun-neurriak.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Hezkuntza-sistema hobetzeko plana.

Hezkuntza-eskumenak dituen sailak, kontuan hartuz dekretu honetako hezkuntza-eredu pedagogikoa eta barruko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak, hezkuntza-sistema hobetzeko beste plan bat aurkeztuko du, eta bertan jasoko ditu euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko neurri guztiak.

Plan horretan sartuko dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dekretu honetan hartutako konpromisoak. Konpetentzien arabera eredua aplikatuz Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak lortzeko estrategiek garrantzi berezia izango dute Plan horretan. Batik bat, neurri hauek nabarmenduko dira: irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarekin lotutakoak; elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan sendotzeko neurriak, ikastetxe guztietan atzerriko lehen hizkuntza komunikazio-hizkuntza gisa eskaintzea orokortu arte; hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari eman beharreko arreta bultzatzeko neurriak; ikastetxeen autonomia sustatzeko neurriak eta ikastetxeak euren kontuak aurkeztera akuilatzekeo neurriak; material didaktikoak egin eta erabiltzeko neurriak; Informazio eta Komunikazio Teknologia irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuetan sartzeko neurriak; eta ikasleak, irakasleak eta hezkuntza-sistema ikertzeko eta ebaluatzekeo neurriak. Irakasleei, ikastetxeei eta familiei beren erantzukizunak betetzen laguntzeko neurriak ere hartuko dira.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Irakaskuntza atzerriko zentroetan.

Hezkuntza-eskumenak dituen sailak bere eskumenen arabera erabakiko du Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako atzerriko zentroek zer irakatsi behar duten gaztelania eta kulturari eta euskara eta kulturari buruz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko urriaren 16ko 175/2007 Dekretua indargabetzea.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.